



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALERRIKO SANTA LUZIAN - UZTURRE- HAINBAT SAILETARAKO LUR ZAINZAILETZA KONTRATUA.

Tolosan, 2014ko maiatzaren xxan

ELKARTURIK:

Batetik, Ibai Iriarte San Vicente, adinez nagusia, 72.487.486-L N.A. zenbakidunarekin, zaintzailletza kontratu honi dagokionean, Tolosako Udaletxean, Plaza Zaharra 6-an helbideratua.

Eta bestetik, Naiara Corcuera Landaluze, adinez nagusia, 72728132-Q N.A, zenbakidunarekin, zaintzailletza kontratu honi dagokionean, Bergaran, Errotalde Jauregia, z/g-an helbideratua.

DIHARDUTE:

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkari gisa (hemendik aurrera, etxaldea deituko duguna) Tolosako udalerrriaren katastroko ondorengo poligonotako sailen jabe gisa.

1. poligonoa: 78,86 eta 88 lursailak
2. poligonoa: 90,108,125 eta 128 lursailak

Bigarrena, erakundeen erroldan AS/G/15685/2011 zenbakia duen Naturtzaindia, Kontserbazio-Biologiaren Euskal Elkartearen lehendakaria, honen izenean eta ordezkari gisa.

AURKEZTEN DUTE:

1.- Esparru geografikoa

Lur-sailak Tolosako udalerriko Santa Luzia auzoan kokatuta daude, Uzturre mendiaren magalean, hego mendebaldera begira.

2. Azken hamarkadetako bilakaera

Tolosako Udalak, 1966an sinatu zuen Partzuergo kontratu bat Estatuaren Baso Ondarearekin non, Uzturreko lur sail hauek, birlandatu zitzan, haren esku geratzen ziren. Aurten bertan, eginiko landaketa haiek moztearekin batera bukatutzat ematen da sinatutako partzuergoa eta beraz, Uzturre mendia kudeatzearen



TOLOSAKO
UDALA



erantzukizun osoa Tolosako Udalak berreskuratu du. Mendia oso malda handikoa da eta tarteka kare-harria azaleratzen da, bereziki, 6.000 m² inguruko azalera duen muinoan eta ekialdean, berez etorritako hostozabalez osatutako besoan, non oso lur mehea dago.

Azpimarratzekoa da beso hori kenduta, gainontzeko azalera guztian koniferoak landatu ziren arren, horien jarraipen eskasa medio, hainbat unadetan galdu egin dela landatutakoa, edo berez etorritako landaretzagatik gainditua izan dela behintzat.

Era berean, ondare naturalarekin lotutako hainbat elementu historiko-kultural ditu, hala nola, Miserikordiaren etxearen hondarrak, horri lotutako baratza sailak eta telegrafo optikoaren dorrea.

3. Lur Zaintzaletzarako Elkartearen helburu orokorrak

Naturtzaindia, Kontserbazio-Biologiaren Euskal Elkartearen helburuen artean, ekosistemen eta bere osatzaileen egoera egokia sustatu eta bermatu edo berreskuratzeko, ezagutza zientifikoan eta teknikoan, bai jadanik ezagutzen direnak nahiz berak sustatutako azterketetan sortu daitezkeen berriak, oinarritutako metodologia praktikoak abian jartzea da.

4. Etxaldearen helburu orokorrak

Etxaldeak, bere jabetzakoak dituen lur-sailetan dauden habitaten kontserbazio egoera hobetzeko borondatea azaltzen du, horretarako osagai naturalak (batez ere bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratuz eta artatuz, pertsona guztiek gozatzeko modua izan dezaten eta ondorengo belaunaldietarako ere hala gerta daitezzen.

AKORDIOAK:

Lehena - Xedea

Kontratu honen xedea, hitzartzen diren lur-sailen balio naturalak (batez ere bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratzeko eta artatzeko akordio bat finkatzea da. Lur-sail horien identifikazio eta proposatzen diren ekintzak, atxikitzen den txostenean zerrendatzen dira.

1. eranskinean atxikitzen da lur-sailen planoak.

Bigarrena - Edukia

Kontratu honen bidez, honen edukitik ondorioztatzen diren lur-zaintzailtza helburuak lortzera bideratuko den kudeaketa bat eramateko hitz ematen du



TOLOSAKO
UDALA



jabetzak, Naturtzaindiaren plangintza, ekimen zuzena eta jarraipena baimenduz, ondorengo paragrafoetan adosten diren zehaztasunekin.

Hirugarrena – Etxaldearen konpromisoak

Kontratu honen bidez, etxaldeak agintzen du:

- Zaintzailletza akordioaren bigarren puntuan azaldutako helburuekin bat egingo duen kudeaketa eredia erabiltzea.
- Lur sail hauetan, helburu horien aurka joan daitezkeen ekintzak ez egin eta ez beste batzuei baimentzea, batez ere:
 - bizitzeko, industriarako, jolaserako edo beste edozein erabileretarako izan daitezkeen egoitzen eraikitzeak, nola eta kontratu honekin bateragarriak izan eta lur-sail horien ustiaketarako helburuarekin egindakoak ez badira.
 - akordioarekin zer ikusirik ez duten iragarki panelak ezartzea.
 - isurketak edo edozein modutako hondakin likidoak nahiz solidoak lurperatzea.
 - bertako basoa murriztu dezaketen mozketak.
 - hondeaketa, lur-berdinketa edo mehagintzarako hondeaketak.
 - Naturtzaindiaren aurretiko aholkularitzarik gabe, edozein motatako flora edo fauna aleak sartzea edo landatzea.
 - aurrekoen antzekoa izan dezaken edozein ekimen egitea eta/edo kontratu honetan lur-zaintzailletzarako ezartzen diren helburuen aurka garbi joan dezaken beste edozein jarduera burutzea.
- Dokumentu honek espresuki Naturtzaindiaren esku uzten ez dituen lege eta zergekiko betebeharrak guztietaz arduratzea.

Laugarrena – Naturtzaindiaren konpromisoak

Kontratu honen bidez, Naturtzaindiak agintzen du:

- Kontratu honen helburuekin bat datozen kontserbazio eta berreskurapen ekimenak etxaldeari proposatu, zuzendu eta jarraipena egitea eta, hala behar izanez gero, beharko diren diru-iturriak lortzeko aholkularitza etxaldeari eskaini eta ekintzak zuzenean burutzea, beti ere etxaldearen onarpena jaso ondoren.
- Kontratu honetan sartzen diren akordioak behar duten zaintza eta jarraipena egitea.

Bostgarrena- Etxaldek eta Naturzaintzak urteko programa adostu beharko dute eta urte barruan egindako balantzea azaldu.



- Txostenean urte horretan egindako jarduerak azalduko dira eta hurrengo urterako plangintzaren proposamena. Lur-saileko natur ondareak daraman bilakaera azalduko da.
- Gutxienez urtean behin Naturtzaindiako ordezkari batek, aipatutako txosten honen eta akordioaren egoerari buruzko azalpenak emango dizkie udaleko alderdi politikoei Ingurumen batzordean.

Seigarrena – Sailetarako sarbidea

Etxaldeak, Naturtzaindiak izendatzen dituen pertsonen lur-sailetarako sarbidea onartuko du, kontratu honetan jasotako akordioen jarraipena egiteko helburu bakarrarekin.

Etxaldeak gainera, egun lur-sail hauen mugetatik sartzen diren bide eta bidezidorretatik, oinezko sarbidea eragotziko luketen itxiturarik ez eraikitzea agintzen du, kontratu honekin bateragarria izan eta ingurumen berreskuratze lanak aurrera eramateko ezinbestekoa gertatzen ez bada behintzat. Hala gertatuko balitz, Naturtzaindiaren aurretiko aholkularitza jaso beharko luke eta beti ere, oinez pasatzeko dauden igarotze zorrak eta bide publikoak errespetatzeko behar diren bitarteko teknikoak erabiliko ditu.

Zazpigarrena - Zabalkundea

Kontratu hau indarrean dagoen bitartean, bi aldeek kontratua eta bere xedea ezagutarazteko ahal dituzten komunikabide guztiak erabiltzea adosten dute, elkar aitortpen publikoa eginez.

Era berean, elkarren artean hala adostuz gero, etxaldearen sarbideetan iragarki panelak ezarriko dira, sailen izenarekin, jabegoa eta Naturtzaindiaren arteko akordioaren berri emango dutenak.

Zortzigarrena – Iraupena

Kontratu honen hasierako iraupena 5 urtetan finkatzen da. Epe hori igaro ondoren, kontratua epe berdinerako berrituko da 20 urte bete arte, bi aldeek horrela adosten badute. Alderen batek hitzarmen hau bertan behera utzi nahiko balu, honen berri eman beharko dio beste aldeari, dagokion amaitze epea betetzeko gutxienez hiru hilabete falta direnean.

Bi aldeek hala komeni dela erabakiz gero, edozein momentuan kontratua bi aldeen arteko adostasunarekin bukatutzat eman daiteke.

Bederatzigarrena – Etxaldea besterentzea



TOLOSAKO
UDALA



Jabegoak, beste pertsona baten izenean, etxaldearen jabetza eskualdatu nahiko balu, asmo honen berri eman beharko dio Naturtzaindiari, gutxienez hiru hilabete aurretik. Gainera jabegoak Naturtzaindiarekin duen kontratu honen existentzia jakin arazi beharko dio erosleari eta eskualdatze kontratua formaltzeko jasotzen den akordioan, eroslearen eginbeharren arten espresuki jasoko dute kontratu hau subrogatzearen beharra. Aurreko hau hala egingo ez balitz, jabetzak Naturtzaindiaren aurrean erantzun beharko luke, erakarri ditzaken ondoriotarako, kontratu hau urratuko balu bezala hain zuzen.

Hamargarrena – Gatazken konponketa

Hitzarmenaren interpretazioan edo akordioaren edozein xehetasunen betetzean bi aldeek ezadostasunen bat izanez gero, mekanismo hauek jarriko dira indarrean, konponbide baten bila:

- Bitartekotasuna: bi aldeek bitartekotasun batzorde bat osatuko dute, non, zuzenean ala ordezkaturik, Etxaldea, Naturtzaindia eta Euskal Herriko Unibertsitateko ekologiako irakasle bat egongo diren, ezadostasunaren arrazoiak eztabaidatzeko. Alde bakoitzak bere arrazoi guztiak aurkeztu ondoren, ebazle moduan onartutako pertsonak, gatazkari soluzio bat emango dio eta irtenbidea bi aldeen borondate onez onartu beharko da.
- Ebazpena: bitartekotasun ahaleginak huts egingo balu, bi aldeek ebazpenaren pean jarriko dira, indarrean dagoen ebazpen legeak ezartzen duenaren arabera.

Hamaikagarren – Ez betetze larriaren salaketa

Bi aldeek ohartarazten dute salaketa eskubidea erresalbatzen dutela, hala dagokionean, kontratu honetan ezartzen diren edozein klausulen ez betetze larriak salatze eta egokiak derizkien ordainak eskatzeko. Honen zuriketa, kontratu honek gizartearekiko duen garrantzia eta balioan oinarritzen da, errespetatu beharra berarekin dakarkielarik.

Hamabigarrena.- Ezin bestekoa izango da urtez urte proiektuaren edo ekintza planaren adostasuna lortzea. Adostasunik ez balego, alde bietako kide batek hitzarmena salatu dezake.

Ibai Iriarte San Vicente
Tolosako Alkate Jauna

Naiara Corcuera Landaluze
Naturtzaindiako Lehendakaria